

ARTXIBO, BIBLIOTEKA ETA MUSEOETAKO LAN-POLTSA HANDITZEKO HAUTAKETA-PROZESUA

- **OPOSIZIO FASEKO BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK**
- **MEREZIMENDUEK AURKEZTEKO EPEA**

Artxibo, Biblioteka eta Museoetako lan poltsa handitzeko hautaketa prozesuko epaimahaiak, aipatutako hautaketa prozesuko 2018ko azaroaren 30ean egindako ariketa bakarreko probak ebaluatu ditu, praktikoa 2018ko abenduaren 3an eta leheneko partea 2018ko abenduaren 26an, eta deialdiaren seigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2018ko urtarrilaren 22ko erabakia), epaimahai honek honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehenengoa.- Artxibo, Biblioteka eta Museoetako lan poltsa handitzeko hautaketa prozesuaren oposizio fasearen behin-behineko emaitzak ezartzea. Lehiakideek emaitzak lan-eskaintzen atarian kontsultatu ditzakete.

Bigarrena .- 5 lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezen, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Erreklamazioak epaimahai kalifikatzaileari igorriko zaizkio, jakinarazpenotarako helbidea honako hau izanik, EHUko Bizkaiko campusean, Pertsonalaren gerenteordetza, AZPren zerbitzua, Hautaketa eta Hornikuntza (Sarriena auzoa, z/g, 48940 Leioa).

Horren arabera erreklamazioa egin behar dutenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dute erreklamazioarekin batera, hurrengo puntuan zehaztu bezala.

Hirugarrena.- Deialdiaren seigarren oinarriko 1. atalean jasotakoarekin bat, oposizio fasea gainditu dutenek, hirugarren oinarriko 3. puntuan azaldutako eran merezimenduak eta hizkuntza betebeharrak egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu behar izango dituzte. Dokumentazio hori aurkezteko epea, 5 lanegunekoa izango da, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta.

Leioan, 2019ko urtarrilaren 7an

Epaimahiko idazkaria



Josune Areizaga Arana

ARTXIBO, BIBLIOTEKA ETA MUSEOETAKO LAGUNTZAILEEN LAN-POLTSA HANDITZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN EPAIMAHAIA

ARIKETA PRAKTIKOAREN ZUZENTZEKO IRISPIDEAK

Ariketa praktikoan Epaimahaiak proposatutako 3 ariketen artean bat aukeratu behar zen. Aukerak hauek ziren: katalogazio ariketa bat eta bi idazketa probak.

Katalogazio ariketan eta balorazio objektiboa egiteko nahian, Unibertsitateko Biblioteka Katalogazioaren Arduraduna bi dokumentuen deskribapen bibliografikoak egin ditu.

Katalogazio kasu bakoitza gehenez 10 puntuekin balioztatzea erabaki da.

10 puntuk ariketa bakoitzean etiketa, adierazle eta azpikanpoen kodeen balorazio zehatzekin banatzen dira. Balorazio erregistro bibliografikoan garrantziaren arabera finkatu da eta lehiakideen CDU katalogazio arauak eta MARC21 formatuaren ezagutza balioztatzea helburua izanik.

Horregatik, gai-sarrerak (100 eta 700 etiketak) klasifikazioa (080) eta materien Esleipenarekin zerikusia duten etiketak puntuazio altuagorekin balioztatu dira. Beharrezko diren etiketak baina epaimahairen iritziz garrantzi gutxiagokoak puntuazio txikiago jaso dituzte, 020,300 edo 500, esate baterako.

Idazkera ariketetan zuzentzeko irizpideak hauek dira:

Eskatutakoarekin egokitzapena

Lantzeko gaiari buruzko ezagutza

Argitasuna

Laburtzeko gaitasuna

Kasu guztietan, ariketak bi epaikipeek bananduta zuzenduko dituzte. Puntuazio ezberdina izatekotan, ariketaren emaitza emandako puntuazio media izango da.

Leioa, 2018ko abenduaren 3